

Uztailaren 22an  
**URTEAN ZEHARREKO 16. IGANDEA**

### Agurra

Jesus Artzain onaren grazia eta bakea zuekin.

### Sarrerako oharpena

Aldare inguruan kristau taldea bildu gara. Baina Jaunarentzat bakoitza bat gara, bat maitea, izenez ezagutzen duena, zaindu eta babesten duena. Hala maite gaitu Jesusek. Igandeko batzar hau gerta dakigula egiazko bilgune: senti gaitezela deituak eta maitatuak, Kristo ari da bere artaldea biltzen.

### Damu-otoitza

Senideok: gure Jaungoikoa bihozbera eta errukitsua da. Horregatik, misterio santuak ospatzerakoan, azter ditzagun gure bizitzak, eta aitor dezagun geure bekatua Jaunaren eta Elizaren aurrean.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

### Otoitza

**Begira, Jauna, zeure zerbitzariei  
 eta emazkiezu ugari zeure graziaren dohainak,  
 fedea, esperantzak eta maitasunak indarturik,  
 zure aginduetan erne iraun dezaten.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

**Hitzaren liturgiari oharpena**

Atsedena, lasaitasuna, zoriona... beti bilatzen ditugu gizon-emakumeok eta bereziki bizi dugun aldi honetan. Jainkoak horixe eskaintzen digu, bere ondoan atsedeen hartzeko aukera, bizitza lasaitasunez eta egonkortasunez bizitzeko bidea.

**Lehenengo irakurgaia** (*Jr 23, 1-6*)

Jeremias profetaren liburutik

«Zoritzarrekoak, nire larreko ardiak galtzen eta sakabanatzen dituzten artzainak» —dio Jaunak—.

Horregatik honela mintzo zaie Jauna, Israelgo Jaungoikoa: «Nire herria zaintzen duzuen artzainok, zuek sakabanatu eta galdu dituzue nire ardiak, eta ez duzue haien ardurarik izan. Kontu eskatuko dizuet, zuen gaiztakeriagatik» —dio Jaunak—.

«Neuk bilduko ditut nire artaldearen hondarrak, Nik sakabanatu nituen lurralde guztietatik; beren larreetara ekarriko ditut berriro, eta hazi eta ugarituko dira. Zainduko dituzten artzainak sortuko dizkiet; ez dira inoiz beldurtuko, ez izutuko; bat ere ez da galduko» —dio Jaunak—.

«Begira, badatoz egunak —dio Jaunak—, eta Davidi legezko muskil bat sortuko diot Errege zentzuduna izango da; eskubidea eta zuzentasuna ezarriko ditu lurrean. Haren egunetan Juda salbatuko da eta Israel kezkarik gabe biziko. Eta hau izango du izen: "Jauna gure zuzentasuna"».

**Erantzun-salmoa** (*Sal 22, 1-3. 4. 5. 6*)

Jau - na dut ar- tzain, ez naiz e-ze - ren be - ha-rre - an.



Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean:

larre gurietan etzanarazten nau.

Atsedenezko iturrira narama '

eta berpizten dit barrena.

Banarama bidezidor zuzenetatik '

bere izenagatik. R/.

Ibar ilunetatik banabil ere, ez nago gaitz-beldur,

Zu nirekin baitzaude:

zure zigorra eta makila,

hauek dira nire poza. R/.

Atontzen didazu mahaia,

etsaiak dauzkadala begira;

olioz gantzutzen didazu burua,

gainezka dago nire edontzia. R/.

Zoriona eta grazia ditut aldean,

neure bizi guztiko egunetan;

eta Jaunaren etxean naiz biziko

luzaroen luzaro. R/.

**Bigarren irakurgaia** (*Ef 2, 13-18*)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei

Senideok: Orain Jesu Kristorengan zaudete. Lehen urruti zeundetenok, orain hurbil aurkitzean zarete Kristoren odolaz.

Kristo da gure bakea; bat egin ditu Berak bi herriak, haiek bereizten zituen hesia —gorrotoa— bere haragiaz urraturik; berezko indarra kendu die Legeari eta aginduei, bakeak eginez, bi ziren haietatik gizaki berri bakarra sortzeko. Bi herri haiek Jainkoarekin baketu zituen gurutzearen bidez, gorputz batean bilduz, gorrotoari beregan heriotza ematen ziolarik.

Etorri zen eta bakearen berri ekarri zuen: bakea zuei urrutikoei eta bakea hurbilekoei; horrela Beraren bidez dugu batzuk eta besteok sarrera Aitarengana Espiritu bat-berarengan.

### Aleluia (*Jn 10, 27*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

Nire ardiek aditzen dute nire mintzoa  
—dio Jaunak—;  
Nik ezagutzen ditut,  
eta haiek ondotik datozkit. R/.

### Ebanjelioa (*Mk 6, 30-34*)

#### Homiliarako argibideak

*Artzainek ere behar dute atsedena eta isilunea*

Ederra da Jesusen giza alderdia gaurko Ebanjelioan: atsedena eskaintzen die hamabi ikasleei, Berarekin bakarka, bizipenei begiratzeko eta erreparoa egiteko, lehenengo misioalditik itzuli direnean.

Denok behar dugu atsedena. Bereziki gure bizipen pastoralak berrikusteko, norbaitekin elkarriketan aztertzeko, izan arrakastadun nahiz porrota gertatu. Zer ondo, beti izango bagenu bizi duguna norekin elkarbanatu, entzungo gaituen norbait, zuzentzen lagunduko diguna eta bultzada emango diguna aurrera egiteko.

Denok behar dugu bakerik bizitzan, otoitzerako unerik, isiltasun gunerik, Maisuarekin lasai egoteko, elkarri begiratzeko. Kristau bezala kementsuak behar dugu izan, eskuzabalak eta eginkorrak... baina dena ez da egitea. Erritmoari eutsi eta barruko osasunari, espirituzko bizitzari arreta eskaintzea ezinbestekoa da.

Kontua ez da denok basamortura ihes egin eta eremutar bihurtzea. Baina beharrezko bakez bizitzeko, orekaz bizitzeko, beharrezkoa dugu hausnarketari, irakurtzeari, atsedenari eta bereziki otoitzari tartea eskaintzea. Otoitzean aurkitzen dugu indarra gainontzeko lanak, harremanak edota eskuzabaltasuna bera hobeto egiteko.

### *Artzain onak eta artzain txarrak*

Jeremiasi begiratzuz eta haren kexuak entzun ondoren, konturatu gara zein diren artzain txarrak: bere ardiak zaindu ez baizik norbere buruari begira bizi direnak; batu eta gidatu orde, zatitzen dutenak; arriskuen aurrean babesik ematen ez dutenak. Batzuetan jendea da artzain txarrez kexatzen dena, gaurko irakurgaietan Jainkoa bera ikusi dugu kexati.

Jainkoak, ordea, ez du bere herria inoiz ere artzainik gabe uzten. Orduan bezala gaur ere bai baitira noraezean bizi direnak, artzainik gabeko ardiak bezala, eta behar dute Jainkoaren bidera eramango

dituen artzaina. Hala agertu digu Jesusek: artzainen beharra alde batetik eta artzainak izango diren promesa bestetik.

Kristo da Artzain Ona. herria ikusi eta "erruki" izan zuena. Badaki otoitza eta isiltasuna karitatearekin eta zerbitzuarekin uztartzen; ez baitago horiek bereizterik. Artzain onak bakea sortzen du, lagundu egiten du, zaindu, sendatu, bere denbora eskaini, bere bihotzean errukia eta maitasuna sentitu. Denok dugu aukera horretarako gure bizitzan, familian, elkartean, gizartean. Geure buruari hainbeste begiratu gabe begira altxa eta senideetan Jainkoa ikusteko; otoitzean, Jainkoari begiratzean, senidez oroitzeko... Balio du jarrera honek gurasoentzat, hezitzaileentzat... testigantza ematea eta eredugarri izatea beharrezkoa duen edonorentzat.

*Kristok biltzen ditu herri guztiak*

Hori guztia batasunean bizitzeko bidea da. Batasuna eta oreka nor bere buruarekin. Batasuna otoitzaren bakean aurkitzen den Jainkoarekin. Batasuna munduko gizon-emakume guztiekin, senide direla sumatuz eta horrela bizitzen saiatuz.

«Jainkoak ematen dio bakea bere herriari». Bizi gaitzela bakearen bila. Aurki dezagula gaur bake hori zatitzen eta ematen zaigun Jesusengan. Parte har dezagula gaur ere mahai santu honetan ardura batekin: bukaeran "zoazte" entzuten dugunean, hemen jasotakoa eramateko ardurarekin, hots egiteko ardurarekin, bizitzeko ardurarekin.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Otoitz egin diezaiogun, senideok, errukiaren Jaunari gure ahultasunean lagun gaitzan, Berak nahi bezala bere izenari dei egin diezaiogun.

- Elizen arteko bakearen alde, kristau guztien batasunaren alde eta gure zorionaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunen alde, beraien ardurapean bakezko eta ongizatezko bizitza izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etxetik urrun direnen alde, gaixoen eta kartzelatuen alde, sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Fedez eta begirunez biltzen den gure elkartearen alde, gure parrokian on egiten duten guztien alde eta behartsuei laguntzen dietenen alde. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Jauna, igandea ospatzera bildu den Zure herriaren otoitzak, eta egizu, Zure Semearen hitza entzunez eta biziaren bere ogitik janez egiazko profeta eta betiko biziaren iturrira garamatzan artzain on aitor dezagula. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin;  
eta sakramentu hauen graziaz bete dituzunei  
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,  
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**